



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko martxoaren 12a

36. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Fiskalizazio txostena, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren ikuskapen eta babesletza eginkizunei dagokienez izandako jardunari buruzkoa (1982-2011), Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Fiskalizazio txostena, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren ikuskapen eta babesletza eginkizunei dagokienez izandako jardunari buruzkoa (1982-2011), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren ikuskapen eta babesletza eginkizunei dagokienez izandako jardunari buruzkoa (1982-2011), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Fiskalizazio txostena, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren ikuskapen eta babesletza eginkizunei dagokienez izandako jardunari buruzkoa (1982-2011), Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
  - II. Helburua eta norainokoa (3. or.).
  - III. Nafarroako Aurrezki Kutxa (4. or.).
    - III.1. Nafarroako Kutzaren ezaugarri orokorrak (4. or.).
    - III.2. Nafarroako Gobernuak bete beharreko ikuskatze-eginkizuna (6. or.).
    - III.3. Nafarroako Gobernuak bete beharreko babesletza-eginkizuna (6. or.).
    - III.4. Foru Diputazioak/Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxa dela-eta dauzkan beste prerrogatiba batzuk (9. or.).
    - III.5. Nafarroako Gobernuaren barruan, organikoki, aurrezki kutxei buruzko eskumenak nork izan dituen (13. or.).
  - IV. Ondorioak (14. or.).
    - IV.1. Esparru orokorra (14. or.).
    - IV.2. Nafarroako Gobernuak betetako ikuskatze-eginkizuna (16. or.).
    - IV.3. Nafarroako Gobernuak betetako babesletza-eginkizuna (16. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (19. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (20. or.).

## I. SARRERA

Bildu-Nafarroa eta Socialistas de Navarra parlamentu-taldeek eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2013ko ekainaren 17an, erabaki zuen Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea *“Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxaren ikuskapen eta babesletza publikoko eginkizunei dagokienez izandako jardunari buruz”*. Eskari hori Kontuen Ganberaren 2013ko jarduketa programan sartu da.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, helburuak eta egindako lanaren norainokoa ageri dira. Hirugarrenean, aipamen labur bat egiten da Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitetxearen (aurrerantzean Nafarroako Kutxa) ezaugarri orokorrei buruz eta Nafarroako Gobernuak entitate hori dela-eta dauzkan ikuskatze-, babesletza- eta bestelako prerrogatibei buruz, eta aipatzen da, halaber, eskumen horiek Nafarroako Gobernuaren egitura organikoan nola dauden esleituta. Azkenik, laugarrenean, egindako lanean lortu ditugun ondorioak azaltzen ditugu.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osaturiko lantaldeak egin zuen, 2013ko urritik azarora bitartean. Lantalde horrek, bestetik, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko eta Nafarroako Parlamentuko Aholkularitza Juridikoko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntza-rengatik.

## II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaria betez eta Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxa dela-eta dituen ikuskaritza- eta babesletza-eginkizunei buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Gure txostenaren helburua da adieraztea zein den gure iritzia *“Nafarroako Gobernuak egoki bete izateari buruz Nafarroako Kutxaren gaineko ikuskaritza- eta babesletza-eginkizunak, zeinak funtsean finantza-entitate horren estatutuetan ezarrita baitaude”*.

Metodologia gisa, lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak bildu dira.

Lana, funtsean, honako hauek izan ditu ardatz:

- Aztertzea txosten honen xede diren gaien erregulazioa. Funtsean, Nafarroako Kutxaren estatutuetan jasota daude gai horiek.
- Egiaztatzea Nafarroako Gobernuak noraino bete dituen ikuskaritzaren eta babesletzaren arloan zeuzkan betebeharrak.

Halaber, 2013ko azaroan, Espainiako Bankuari informazioa eskatu zitzaion Nafarroako Kutxa dela-eta egindako ikuskaritza-jarduerei buruz, estatutuetan aurreikusitakoari jarraituz. 2014ko urtarrilaren amaieran, Espainiako Bankuak, bere erantzunean, aditzera eman du ezen, berari buruzko legediaren arabera, *“bere esku dituen datu, agiri eta informazioek isilpeko izaera dutela, eta ezin zaizkiola eman ez inongo pertsonari, ez inongo agintariri ere, salbu eta araudian berariaz adierazitako kasuetan; kasu horien artean, ordea, ez dago aurreikusita autonomia erkidego bateko fiskalizazioko organo bati lagatzea”*. Nafarroako Gobernuari igorritako idazkiak gehitu ditugu; haietan, izan ere, informazioa ematen zaio Nafarroako Kutxari 2001ean eta 2004an egindako bi ikuskapenari buruz.

Halaber, erreferentziatzen hartu da Nafarroako Parlamentuko Aholkularitza Juridikoak egindako txostena, *“Nafarroako Kutxaren jarduketari, haren izaera juridikoari eta Nafarroako Kontuen Ganberak hari buruzko balizko fiskalizazioa egitearen”* gainekoa. 2013ko ekainean egindako txostena da.

Gure lanak honako aldia hartzen du: Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa (LORAFNA) aldarrikatu zenetik 2011ko uztailera arte, une horretan utzi baitzion Nafarroako Kutxak berez finantza-entitate bat izateari –nahiz eta kalifikazio juridiko horri eusten zion oraindik ere–, bere finantza-negozioa osatzen zuten ondare-elementuak Banca Cívica, SAri eskualdatzearen ondorioz. Hau da, une horretatik aurrera, Nafarroako Kutxak, beste aurrezki kutxa batzuekin batera<sup>1</sup>, finantza-jardueran zeharka jardutearen alde egin zuen, tresna-banku baten bitartez –Banca Cívica, SA–, eta azken entitate horretan geratzen dira bai akzioen jabetza, bai gizarte-lanaren zuzendaritza eta kudeaketa.

Nafarroako Kutxaren estatutuak 1921ean onetsi ziren hasiera batez. Gero, lau erreforma egin zitzaizkien, 1976an, 2000n, 2004an eta 2010ean. Azkenean, 2012an, gure lanak hartzen duen aldiak kanpo eta Nafarroako Kutxaren finantza-negozioa Banca Cívican sartzearen ondorioz, beste estatutu batzuk onetsi ziren, entitatearen jarduera eta egitura errealtate berri horri egokitzeko.

Azkenik, aipatu behar dugu 2012ko martxoan, CaixaBank SAk Banca Cívica SA xurgatzearen bidezko bat-egitea gauzatu zela. Nafarroako Kutxak finantza-entitatearen legezko izaera galdu zuen eta izaera bereziko fundazio bilakatu zen: “Nafarroako Kutxa Fundazioa”. Fundazio horren helburua da gizarte-lana eta daukan ondarea kudeatzea.

### III. NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

#### III.1. NAFARROAKO KUTXAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Txosten honen eraginetarako, Nafarroako Kutxaren honako ezaugarri hauek nabarmentzen ditugu:

- Foru Diputazioaren erabaki batez, 1921eko abuztuan sortu zen Nafarroako Kutxa, eta orduan onetsi ziren, halaber, haren estatutuak. Toki araubideari buruzko legedi orokorrari jarraituz sortu zen, eta haren jarduera une bakoitzeko arauen arabera izanen zen. Hasieratik, Foru Diputazioak, 1841eko Lege Hitzartuaren babesean, bere goreneko zuzendaritza-eginkizuna defendatu zuen Nafarroako Kutxaren gobernuari eta kudeaketari dagokionez. Defentsa hori dela eta, zenbait gatazka sortu ziren Estatuaren eta Nafarroaren artean. Hala eta guztiz ere, Estatuarekin 1976an lortu zen ituna dela eta, erabaki zen Nafarroako Kutxaren estatutuak bi administrazioek modu partekatuan onetsi zitzatela, eta sistema bat ezarri zen, zeinetan, alde batetik, Nafarroako Kutxaren antolamendu-alderdia foru araubidearen eskumen bat den eta, bestetik, haren finantza-jarduerari buruzko eginkizuna Estatuaren eskumenekoa den. Itun horretatik heldu da Nafarroako Kutxari esleitzen zaion izaera forudun edo hitzartua.
- Denborak joan denborak etorri, bilakaera sakon bat izan du bere izaera juridikoan: Foru Diputazioaren menpeko egiazko zerbitzu probintzialtzat hartzen zen hasiera batean; fundazio-izaerako eta gizarte-ongintzazko kreditu-entitatearen ezaugarriak hartu zituen gero; eta, amai-eran izaera guztiz pribatuko entitatetzat kalifikatu zen. Azken batez, kreditu-entitatearen izaera nagusitzen da bankuei buruzko antolamendu juridikoan, non Espainiako Bankuak eginkizun garrantzitsua betetzen baitu.

• Foruaren Hobekuntza aldarrikatzearekin, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoak bereganatu zituen aurrezki kutxen arloan, 56.1 artikulua dion bezala:

*“Jarduera ekonomiko orokorraren oinarri eta antolamenduari bat eta moneta, kreditu, banku, eta aseguruaren arloan Estatuak duen politikarekin bat, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen osoa izanen du Konstituzioak arlo hauetako manuetan dion gisan, ondoko gai hauen gainean:*

*e) Kreditu-erakunde korporatibo, publiko eta lurralde mailakoak.*

*f) Aurrezki kutxak, gai honetan hitzarmenen araubide berezia deusetan ukatu gabe. “*

<sup>1</sup> Cajasol, Caja de Ahorros de Canarias eta Caja de Ahorros Municipal de Burgos.

- Aurreko idatz-zatiarekin bat, Nafarroako Aurrezki Kutxak entitate forudun edo hitzartuen kategoriari eusten dio. Hau da, berariaz aitortzen da Nafarroan araubide berezi bat dagoela aurrezki kutxen arloan, eta kutxa horiek hitzarmen baten menpean daudela, hain zuzen ere Estatuko gainerako lurraldeetan kutxei buruz dagoen araubide orokorrak salbuesten dituen hitzarmena.

- Foru Komunitateak, bere foru araubidea dela eta, arlo honetan duen eskumena, beraz, bi aldaeratan banatzen da:

a) Estatu izaerako eskumena, autonomia erkidegoei dagokienaren antzekoa, Nafarroan helbide soziala duten aurrezki kutxen gainean, zeinetan kontrol- eta ikuskaritza-eginkizunen multzo zabal bat baitauka. Eginkizun horiek arau-zerrenda luze baten bitartez garatzen dira<sup>2</sup>. Alabaina, arau horiek berezitasun bat dute, zeren eta 1999tik<sup>3</sup> ezin baitzaizkio aplikatu inongo entitateri; izan ere, Nafarroako Kutxa kenduta, ez dago inongo aurrezki kutxarik Nafarroan helbide soziala duenik.

b) Eskumen hitzartu edo foruduna, eskubide historikoetan oinarritua, zeina Nafarroako Kutxan zentratzen baita.

- Nafarroako Kutxa entitate forudunaren izaera duenez gero, Nafarroako Gobernuak eskumen gehigarri bat badauka antolamenduaren eta ikuskatzearen esparruan, eta gehigarri hori agertzera ematen da, funtsean, estatutuak Gobernu Zentralak eta Nafarroako Gobernuak adostu behar izatean. Araubide berezi hori 1976ko estatutuen testuan eta haien geroko aldatetetan –2000n, 2004an, 2010ean– jaso ziren. Izan ere, horiek guztiak Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak elkarrekin batera idatzi zituzten, aurrez Espainiako Bankuak txostena eginda.

- Finantza-jarduera Estatuko legedi orokorraren menpean dago eta agintari eta erregulazionalen nazionalen goi-zuzendaritza, ikuskatze, koordinazio, kontrol eta zehapen eginkizunen menpean; azken horiek, funtsean, Espainiako Bankuaren esku daude.

- Nafarroako Kutxako estatutuek Nafarroako Gobernuari esleitzen dioten ikuskatze-eginkizuna gutxienez ere 1976tik dago indarrean. Estatutu horietan, Nafarroako Gobernuari ikuskatze-ahalmen batzuk esleitzen edo ezartzen zaizkio –“*dispondrá y realizará*”–; hain zuzen ere, honela banatzen dira ahalmen horiek:

a) Aldizkakoak, urteko kontuen eta funtzionamendu orokorraren gainean.

b) Bereziak, jardueraren edozein alderdiren gainean.

Ikuskaritza-eginkizun horiek Kutxaren jarduera osora hedatzen dira, horren barne dela haren gizarte-lana, alderdi finantzarioari dagokionez; izan ere, gizarte-lan hori Espainiako Bankuak ezartzen dituen ikuskatze-jarraibide eta ereduaren menpean jarri behar da eta haren goi-ikuskaritzari lotuta egon behar du.

- Foruaren Hobekuntzatik eta, berariaz, 2000ko estatutuetatik, Nafarroako Kutxa Nafarroako Gobernuaren babesletza publikoari lotuta dago. Babesletza-eginkizun hori, funtsean, arestian adierazi bezala, honako arlo hauetan mamitzen da: entitateko estatutuak modu partekatuan idatzi behar dira; bateratze-eragiketa, eszizio eta eraldaketak baimendu behar dira; etekinak banatzeko proposamena baimendu behar da eta gizarte-lanerako aurrekontuaren onspena eman beharra dago.

---

<sup>2</sup> Nafarroako Aurrezki Kutxen Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legearen garapenetik heldutako arauak.

<sup>3</sup> Urte horretan Nafarroako Kutxak Iruñeko Udal Aurrezki Kutxa xurgatu zuen.

### III.2. NAFARROAKO GOBERNUAK BETE BEHARREKO IKUSKATZE-EGINKIZUNA

Nafarroako Kutzaren estatutuetan, ikuskatze eginkizuna honela garatzen da:

#### III.2.1. 1976ko estatutuak

Ikuskatze-eginkizunaren araubidea honela erregulatzen da:

- Diputazioak aldizkako ikuskapenak xedatu eta eginen ditu, egiaztatze aldera arau indardunak betetzen direla balantzeetan, kontuen egituretan eta aplikatzen diren interesetan, bai eta Kutzaren funtzionamendua eta eragiketak arautzen dituzten arau orokorrak eta estatutu-arauak betetzen direla ere.

- Kutzaren jarduera-alderdi orori buruzko ikuskapen bereziak xedatu eta eginen ditu.

- Ogasun Ministeriotik heldu diren aginduen betetzea zaindu eta exijituko du, eta, halaber, zaindu eta exijituko du estatutu hauek betetzen direla aurrezki-funtsetan, etekinetan, balantzeak egiterakoan edo emaitzen kontuetan eta erreserbak eratu eta gauzatzekoan.

- Diputazioak ikuskatze-eragiketak eginen ditu Espainiako Bankuak ematen dituen jarraibide eta ereduaren arabera, gainerako aurrezki kutxetatan egiten diren aldi berean egin daitezen eta datu berekin egin daitezen.

- Nafarroako Foru Diputazioak Espainiako Bankuari informatuko dio aurreko idatz-zatietan aipatzen diren ikuskatze-jarduketa guztiei buruz, eta ikuskatze-jarduketan kopia igorriko du.

- Hala eta guztiz ere, salbuetsita geratzen da xedapen indardunetan Espainiako Bankuari esleitzen zaion goi-ikuskaritza.

#### III.2.2. 2000ko eta 2004ko estatutuak

Ikuskaritzaren araubidea 1976ko estatutuetan adierazitakoaren berdina da.

#### III.2.3. 2010eko estatutuak

Ikuskaritzaren araubidea aurreko estatutuetakoen berdina da, baina honako idatz-zatia kendu da:

*“Ekonomia Ministeriotik heldu diren aginduen betetzea zaindu eta exijituko du Diputazioak, eta, halaber, zaindu eta exijituko du estatutu hauek betetzen direla aurrezki-funtsetan, etekinetan, kontuak eta emaitzak ematerakoan eta erreserbak eratu eta gauzatzekoan”.*

### III.3. NAFARROAKO GOBERNUAK BETE BEHARREKO BABESLETZA-EGINKIZUNA

Nafarroako Gobernuaren babesletza-eginkizuna Foruaren Hobekuntzaren hirugarren xedapen gehigarrian aitortzen da zeharka, honakoa esaten denean:

*“Nafarroako Foru Komunitatea oraingo Foru Diputazioaren eskubide eta betebeharrorotan subrogatuko da, toki korporazioa den aldetik”.*

Gero, Nafarroako Aurrezki Kutxen Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legean zehazten da. Nahiz eta Nafarroako Kutzari ezin zaion aplikatu, foruduna izateagatik, honakoa dio lege horrek 3. artikuluan:

*“Nafarroako Gobernuaren babesletza publikoa, Estatuaren ekonomia orokorraren eta moneta-politikaren jarduerari buruzko oinarrien eta antolamenduaren esparruan, honako printzipioen arabera gauzatu da:*

a) *Nafarroako Kutzaren independentzia zaintzea eta haren kreditua, izen ona eta egonkortasuna defendatzea.*

b) *Beren jarduketa-esparruan maila sozio-ekonomikoa hobetzera bideratutako aurrezki kutxen legezko ekintza guztiak bultzatzea.*

c) *Zaintzea aurrezki kutxek beren eginkizun ekonomiko-soziala betetzen dutela, halako moduz non aurrezki pribatuaren kudeaketa- eta inbertsio-politika egokia egiten duten.”*

Ikus daitekeen bezala, babesletza-eginkizun hori printzipio oso orokorretan oinarritzen da – printzipio horiek jarduera ekonomikoaren menpe eta Estatuko moneta-politikaren menpe daude–, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren bidez betetzen da. Hala eta guztiz ere, berretsi beharra dago foru lege hau ezin zaiola zuzenean Nafarroako Kutzari aplikatu, foruduna delako.

Aurrerago, babesletza-eginkizun hori Nafarroako Foru Komunitateak aurrezki kutxen arloan dituen zenbait eskumen garatzen dituen ekainaren 29ko 244/1992 Foru Dekretuan arautu zen. Hala ere, aurreko idatz-zatian aipatu den bezala, foru dekretu hori, osorik behinik behin, ezin zaio Nafarroako Kutzari aplikatu, foruduna baita.

Nafarroako Kutzaren estatutuetan, Nafarroako Gobernuak eta Estatuko agintaritzea eskudunak elkarrekin batera idatzitakoetan, honela garatzen da babesletza-eginkizun hori:

### III.3.1. 1976ko estatutuak

Estatutu hauetan ez da berriaz aipatzen Foru Diputazioaren babesletza-eginkizuna. Hala eta guztiz ere, hura irakurri ondoren, eginkizun horrekin bat etor daitezkeen honako alderdiak nabarmentzen ditugu:

- Bulego berriak irekitzerakoan, horri buruz Foru Diputazioak emandako xedapenak bete behar dira.
- Diputazioak guztizko bermea ematen die Nafarroako Kutzako ezarleei eta gordailugileei.
- Kontseilarien eta zuzendari kudeatzailearen izendapen eta kargugabetzeen ondoren, ministerio eskudunak, Espainiako Bankuaren bitartez, onespina eman beharko du.
- Estatutuak onestea eta aldatzea Ogasun Ministerioarekin batera.

Halaber, esaten da Nafarroako Kutzak ekitaldi bakoitzeko kontuen oroitidazki, balantze eta likidazioa eginen dituela, eta entitateko Administrazio Kontseiluak haiek onetsi ondoren, Nafarroako Foru Diputazioari igorriko zaizkiola "*ezagutu eta ikuska ditzan*".

### III.3.2. 2000ko estatutuak

Estatutu horietan Nafarroako Kutxa kalifikatzen da esanez fundazio-izaerako eta gizarte-ongintzako kreditu-erakundea dela, Nafarroako Gobernuaren babesletza publikoaren pean. Nafarroako Diputazioa eta Iruñeko Udala –azken hori, Nafarroako Kutzak Udal Kutxa xurgatzearen ondorioz– entitate sortzailatzat hartuko dira eragin guztietarako.

Nafarroako Gobernuak, bere babesletza publikoko eginkizunean, honakoak izendatu ahalko ditu:

- Pertsona bat edo batzuk, Gobernuak berak finkatzen duen epean Administrazio Kontseiluaren bilkuretara joan ahal daitezen, hizpidearekin baina botorik gabe.
- Pertsona bat edo batzuk, Gobernuak berak finkatzen duen epean Kontrol Batzordearen bilkuretara joan ahal daitezen, hizpidearekin baina botorik gabe.

Kontrol Batzordea erregulatzen da, zeren eta esaten baita bere eskumenen artean dagoela zaintzea eta informatzea entitateko kargudun guztiak hautatu eta izendatzerakoan estatutuak betetzeari buruz; estatutuen interpretazioari buruz entitateko organoek eskatutako txostenak egitea; eta, kasua bada, Administrazio Kontseiluari helaraztea beharrezkotzat jotzen dituen estatutu-aldaketak egiteko proposamenak. Finantzen arloan, honakoak dira haren eskumene-koak:

- Entitatearen finantza-kudeaketa kontrolatzea unean uneko legedi indardunak ezarritako terminoetan, kasua bada horri buruzko txostena eginez. Txosten hori, izan ere, honakoei igorriko die: Espainiako Bankuari, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eta entitateko Administrazio Kontseiluari.
- Entitatearen gizarte-lanaren kudeaketa zaintzea eta kontrolatzea, eta hari buruzko txosten bat egitea; txosten hori, gero, entitatearen urteko oroitidazkiari gehituko zaio.

- Administrazio Kontseiluari, Batzorde Exekutiboari eta zuzendari nagusiarri beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskatu ahalko die, betiere Administrazio Kontseiluko lehendakariari idazkiaren kopia igorrita. Batzordeak beharrezkotzat jotzen diren baliabide teknikoak eta giza baliabideak eduki ahalko ditu.

- Administrazio Kontseiluaren, batzorde exekutiboaren edo haien ordezkarien egintzen eraginkortasuna etetea. Horretarako, Kontrol Batzordeak proposamen bat eginen du, zeina Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioari igorriko zaien, ustez urratu den arauaren edo aginduaren jatorriaren arabera, zioak biltzen dituen idazki baten bitartez, betiere ustez urratu diren lege- nahiz estatutu-arauak zehaztuta.

Eusten zaio estatutuen onespina eta aldaketa Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak batera egiteko betebeharrari.

Entitatearen kontuei dagokionez, esaten da Kutzak kontuak eginen dituela eta ekitaldi bakoitzeko emaitzak aplikatuko dituela. Behin Batzorde Exekutiboak haiek egin dituztenean eta Administrazio Kontseiluak onetsi dituztenean, Diputazioari eta Udalari igorriko zaizkie, entitate sortzaileak baitira, ezagut ditzaten. Ikusten den bezala, aurreko estatutuetan jasotzen zen *"ikuskaritza"* hitza kentzen da.

### III.3.3. 2004ko estatutuak

Eginkizun hori soilik 1. artikuluan aipatzen da, non Nafarroako Kutxa kalifikatzen baita esanez fundazio-izaerako eta gizarte-ongintzazko kreditu-erakundea dela, Nafarroako Gobernuaren babesletza publikoaren pean.

Foru Diputazioak eta Iruñeko Udalak, eragin guztietarako, entitate sortzailetzat hartuko dira.

Nafarroako Gobernuak, babesletza publikoa dela-eta daukan eginkizunean, pertsona bat edo batzuk izendatu ahalko ditu, Gobernuak finkatutako epean Batzorde Exekutiboaren bilertara joan ahal daitezen, hizpidearekin baina botorik gabe.

Administrazio Kontseiluak eta Batzorde Exekutiboak hartutako erabakien eraginkortasuna bertan behera uzteko proposamenari dagokionez, Kontrol Batzordeak hori Nafarroako Gobernuako Ekonomia Departamentuari aurkeztuko dio, zioak jasotzen dituen idazki baten bitartez, eta adieraziko du bere ustez zein lege- nahiz estatutu-arau urratu diren. Behin aipatutako izaipidea beteta, adierazten da eteteko proposamena, eta harekin batera hari atxikitako agiri, jakinarazpen eta komunikazioak, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igorriko zaizkiola, behar diren ondorioetarako.

Beste behin jasotzen da estatutuen onespina eta aldaketa Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak batera egin behar dituztela.

Urteko kontuei dagokionez, Nafarroako Gobernuak *"ezagut ditzan"* besterik ez du esaten.

### III.3.4. 2010eko estatutuak

1. artikuluan Nafarroako Kutxa deskribatzen da esanez fundazio-izaerako eta gizarte-ongintzazko kreditu-erakundea dela, Nafarroako Gobernuaren babesletza publikoaren pean. Gehitzen du Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, eragin guztietarako, entitate sortzailetzat hartuko direla.

Kontrol Batzordeari buruzko erregulazioaren barrenean, honakoa esaten da:

*"Nafarroako Gobernuak, babesletza publikoko bere eginkizunean, aplikatzekoa den lege-diaren arabera egokitzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahalko dio Kontrol Batzordeari, bere babesletza-eginkizunarekin lotutakoa".*

Eusten zaio estatutuen onespina eta aldaketa Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak batera egiteko betebeharrari.

Urteko kontuei dagokionez, Nafarroako Gobernuak *"ezagut ditzan"* besterik ez du esaten.



### III.3.5. Babesletzaren arloko beste jarduketa batzuk

Babesletza-eginkizun horri dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateak aurrezki kutxen arloan dituen zenbait eskumen garatzen dituen ekainaren 29ko 244/1992 Foru Dekretuaren arabera, Nafarroako Gobernuak –Ekonomia eta Ogasun Departamentuak– baimendu edo/eta ezagutu beharko lituzkeen aurrezki kutxen gaineko beste jarduketa batzuk badaude. Horien artean, honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak sortutako Aurrezki Kutxen Erregistroa inskribatzea.

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuak sortutako Aurrezki Kutxetako Goi-karguen eta Zuzendaritza Organoetako Kideen Erregistroan inskribatzea.

- Aurrezki kutxetako goi-karguek, bai eta haien ezkontideen, aurrekoek, ondorengoek eta aurrekoen bigarren gradurainoko alboko ahaideek ere, esku hartzen duten eragiketa batzuk konprobatzea eta, kasua bada, baimentzea. Batez ere, honi dagokio:

- a) Departamentuari komunikatzea aipatutako goi-karguei emandako kreditu, abal eta bermeak, Administrazio Kontseiluak berariaz onetsitakoak, berez edo metatuta, 24.040 eurotik gorako arrisku bat suposatzen dutenean.

- b) Departamentuak aurrez baimena eman behar izatea goi-kargu horiek loturaren bat duten sozietateen aldeko kreditu, abal edo bermeak emateko.

- c) Departamentuak baimena eman behar izatea kutzak eros ditzan aurreko pertsonenak zein haiekin lotutako sozietateenak diren ondasun, eskubide edo balioak.

- d) Berariazko baimena behar izatea kutzek sozietateen partaidetzak har ditzaten, partaidetza horiek, bakarka nahiz metatuta, partaidetza guztien ehuneko 20tik gora egiten dutenean.

Hala eta guztiz ere, aurrez adierazi bezala, Foru Dekretua ezin zaio Nafarroak Kutxari aplikatu, foruduna baita.

### III.4. FORU DIPUTAZIOAK/NAFARROAKO GOBERNUAK NAFARROAKO KUTXA DELA-ETA DAUZKAN BESTE PRERROGATIBA BATZUK

Aurreko ikuskaritza- eta babesletza-eginkizunen osagarri, Nafarroako Gobernuak eragin nagusia izan du Nafarroako Kutxan organo sozialetako kideen izendapenaren bitartez, eta bereziki Administrazio Kontseiluko kideen izendapenaren bitartez.

#### III.4.1. 1921eko estatutuak

Jada 1921eko hasierako estatutuetan –bai eta haien 1950eko aldaketan–, ezartzen da Foru Diputazioak Nafarroako Kutxaren Administrazio Kontseiluko kide guztiak izendatuko dituela –zazpi foru diputatuek eta Nafarroako bost bizilagunek osatuko dute–, eta kontseiluburua Foru Diputazioko lehendakariordea izanen dela. Kontseilu horrek bere kideetatik hiru izendatuko ditu Batzorde Iraunkorrerako –eragiketak ikuskatzeaz arduratuko da batzorde hori– eta Nafarroako Kutxako zuzendari kudeatzailea hautatuko du.

#### III.4.2. 1976ko estatutuak

1976ko estatutuei jarraituz, Batzorde Iraunkorra desagertuko da eta Administrazio Kontseiluak beste osaketa bat izanen du. Hartara, haren burua Foru Diputazioko lehendakariordeak izaten jarraituko du; sei foru diputatuek berezko kide izaten jarraituko dute; eta gainerako sei kideak Diputazioak hautatuko ditu, dela zuzenean –ezarleen bi ordezkari eta Nafarroan sustraituta dauden erakundeen ordezkari bat–, dela enpresaburuen eta langileen kontseilu probintziales –bi kide– eta lanbide-elkargoek –kide bat– aurkeztutako hirukoteen artetik. Zuzendari kudeatzailea Kontseiluak izendatuko du. Aurreko izendapen guztiak egin baino lehen Ogasun Ministerioari komunikatu beharko zaizkio, eta izendapenak egin ondoren ministerio horren onespena beharko da, betiere Espainiako Bankuaren bitartez.

### III.4.3. 2000ko estatutuak

2000ko estatutuetan, egitura organikoa konplexuagoa da. Honakoek osatzen dute: Administrazio Kontseilua, Batzorde Exekutiboa, Kontrol Batzordea eta zuzendari nagusia. Kontseiluko burua Nafarroako Gobernuko lehendakaria izanen da eta kontseiluko buruordea, berriz, Iruñeko alkatea. Nafarroako Gobernuko kontseilariak kontseiluko kideak izanen dira. Horiek guztiak berezko kontseiluko kideak izanen dira. Gainera, beste bederatzi kontseilukide izendatuko dira aipatutako udalaren, interes sozial eta ekonomikoko taldeen eta kolektiboen ordezkari, bai eta entitateko ezarleen eta langileen ordezkari ere. Kontseiluak bere kideen artean izendatuko ditu Batzorde Exekutiboko kideak –zazpi batzordekide bitarte– eta Kontrol Batzordeko kideak –bost batzordekide bitarte–, eta zuzendari nagusia izendatuko du gaitasuna, prestakuntza teknikoa eta eskarmentua duten pertsonen artean.

Kontrol Batzordeak, Administrazio Kontseiluak eskuordetuta, kudeaketa eta administrazio arruntaren kontrol-eginkizunak beteko ditu, eta kudeaketa finantzarioa egiaztatuko du, legedi indardunak ezarritako terminoetan; halaber, txosten bat egingen du, zeina igorriko baitie Espainiako Bankuari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eta Administrazio Kontseiluari.

### III.4.4. 2004ko estatutuak

2004ko estatutuetan, aurreko estatutuetako egiturari eusten zaio, funtsean, baina Nafarroako Kutzako organo goren gisa, beste guztien gaineratik, Kontseilu Nagusia jartzen da. Hau da, gobernu-egitura honakoek osatzen dute: Kontseilu Nagusia, Administrazio Kontseilua, Batzorde Exekutiboa, Kontrol Batzordea eta zuzendari nagusia.

Kontseilu Nagusia hurrengo 30 kideek osatzen dute:

- Nafarroako Gobernuko lehendakaria, kontseilu horretako buru gisa.
- Iruñeko alkatea (lehen lehendakariorde gisa).
- Gobernuko lehendakariak izendatutako sei kide, Gobernua entitate sortzailea baita (horietako bat, Kontseiluko bigarren lehendakariordea izanen da).
- Bost kide, Nafarroako Gobernuko lehendakariak izendatuak, Nafarroako Parlamentuak proposatuta. Biltzarreko talde politikoek proposatutako artetik izendatuko ditu.
- Kutzaren bulegoa duten udalek proposatutako bi ordezkari.
- Kutzaren jarduketa-esparruan garrantzi ekonomiko, sozial edo kultural orokorra duten erakundeen zortzi ordezkari.
- Kutzako ezarleen bost ordezkari.
- Kutzako langileen bi ordezkari.

Bestalde, Administrazio Kontseilua honako 16 kidek osatuko dute:

- Nafarroako Gobernuko lehendakaria.
- Lau kontseilari nagusi, Nafarroako Gobernuko lehendakariak, gobernua entitate sortzailea baita, izendatutako artetik hautatuak.
- Bi kontseilari nagusi, Parlamentuak proposatuta izendatutako artetik.
- Kontseilari nagusi bat, udalbatzetako bi ordezkarien artean.
- Hiru kontseilari nagusi, garrantzi ekonomiko, sozial edo kultural orokorra duten erakundeen ordezkarien artean.
- Kontseilari nagusi bat, ezarleen ordezkari.
- Kontseilari nagusi bat, Kutzako langileen ordezkari.
- Izen handiko hiru profesional, kontseilari nagusi ez direnak, Kutzaren jarduerarekin lotutako gaietan ezagutza eta eskarmentua dutenak.

Kontrol Batzordea hamar kidek osatzen dute eta burua Iruñeko alkatea izanen da, Administrazio Kontseiluko kidea ez bada. Kontrol Batzordeko gainerako kideak Kontseilu Nagusian ordezkatuta dauden arloek izendatutakoen artetik izendatuko dira.

#### III.4.5. 2010eko estatutuak

2010eko estatutuek 2004ko estatutuetako egitura ia berari eusten diote. Hala eta guztiz ere, estatutu horietan, zehazki 8.4 f) artikuluetan, honako debekua sartzan da: *“Entitateko gobernu organoetako inongo kidek ezin izanen du inongo kargu publiko-politikorik izan”*. Artikulu horrek nabarmen aldarazten du aipatutako organoen osaketa eta, praktikan, finantza-entitateko karguen profesionalizazio handiagoa dakar.

Hartara, Kontseilu Nagusia honako 50 kideek osatuko dute –horiei guztiei aplikatzekoa zaie 8.4.f) artikuluko aipatutako debekua–:

- Hamalau, Nafarroako Gobernuko lehendakariak izendatuak, entitate sortzailea den aldetik; horietatik bi Iruñeko Udalak proposatuko dizkio, udal hori ere entitate sortzaile baita.
- Zortzi Nafarroako Gobernuko lehendakariak izendatuak, Nafarroako Parlamentuak proposamena egin ondoren.
- Hiru Kutxak bulegoa daukan udalerriei dagozkien udalbatzek izendatuak, zuzenean udalek hautatuko dituztenak.
- Kutxaren jarduketa-eremuan garrantzi ekonomiko, sozial edo kulturala duten erakunde pribatuetako hamalau ordezkari, Nafarroako Kutxako Administrazio Kontseiluak hautatuak, haietatik jasotako proposamenei jarraituz.
- Kutxako ezarleen zortzi ordezkari, konpromisarioen elkargoan notario batek egindako zozketa baten bidez hautatuak.
- Kutxako langileen hiru ordezkari, langile guztiek zuzenean hautatuak.

Administrazio Kontseiluari dagokionez, 16 kide dauzka, Kontseilari Nagusiak honako hauen arabera izendatuak:

- Nafarroako Gobernuko lehendakariak, gobernua entitate sortzailea baita, izendatutakoen artean bost kontseilari nagusi.
- Bi kontseilari nagusi, Nafarroako Parlamentuak proposatuta izendatutakoen artetik.
- Kontseilari nagusi bat, udalbatzen ordezkari izendatutako hiruen artetik.
- Izen handiko hiru profesional, kontseilari nagusi ez direnak, Kutxako jarduerarekin lotutako gaietan ezagutza eta eskarmentua dutenak.
- Hiru kontseilari nagusi garrantzi ekonomiko, sozial edo kultural orokorra duten erakundeen ordezkarien artetik.
- Kontseilari nagusi bat, ezarleen ordezkari.
- Kontseilari nagusi bat, Kutxako langileen ordezkari.

Kasua bada, Administrazio Kontseiluak berak hala erabakiz gero, Administrazio Kontseiluko hamazazpigarren kidea zuzendari nagusia izanen da.

Administrazio Kontseiluko burua eta lehen eta bigarren buruordeak libreki izendatuko ditu Administrazio Kontseiluak bere kideen artetik. Idazkaria entitateko idazkari nagusia izanen da. Zuzendari nagusia Administrazio Kontseiluak izendatuko du.

Kontrol Batzordearen xedea da ondare- eta finantza-alderdien kudeaketaren gaineko ikuskaritza espezializatua, bai eta honako hauek ere: arauak bete daitezen zaintzea, gobernu-organoen osaera erregulatzea, gizarte-lanaren kudeaketa eta Kontseilu Nagusiak Kutxarako ezarritako jarduketa-ildo nagusiak nahiz finantzen inguruko arauditik heldutako jarraibideak betetzen direla zaintzea. Hamabi kide dauzka, Administrazio Kontseiluko kideak ez diren kontseilari nagusien artetik izendatuak.

Azkenik, estatutu hauek aurreikusten dute, gobernu-organoen kontsulta-organo gisa, Entitate Sortzaileen Batzarra sortzea. Batzar horrek bete beharreko eginkizunen artean, estatutuek, funtsean honakoak aurreikusten dituzte: estatutuak aldatzeko aurreko txostenak eta aginduzko txostenak egitea, gizarte-lanaren xedea aldatzea, beste finantza-entitate batzuekiko egiturazko akordioak egitea eta Administrazio Kontseilurako profesional independenteak izendatzeko proposamena egitea.

Hauxe da banaketa:

- Nafarroako Gobernuko lehendakaria –berari dagokio Batzarreko burua izatea–, lehendakariordeak eta Ekonomia kontseilaria.
- Iruñeko Udaleko alkatea eta lehen alkateordea.
- Kontseilu Nagusiko buru ohiak eta Entitate Sortzaileen Batzarreko buru ohiak, 75 urte betetzen dituzten arte.
- Lau kide, Nafarroako Gobernuko lehendakariak izendatuak, Nafarroako Parlamentuak proposamena egin ondoren.
- Nafarroako Gobernuko lehendakariak, esparru sozial, kultural eta ekonomikoko izen handiko pertsonalitateen artean, libreki izendatutako hiru kide bitarte.

Azken batean, eta **laburpen** gisa, hurrengo taulan erakusten dugu zein den Nafarroako Kutxako organoen bilakaera eta osaera, aztertutako estatutuen arabera:

Nafarroako Kutxako organoak eta kide kopurua	1921eko estatutuak	1976ko estatutuak	2000ko estatutuak	2004ko estatutuak	2010eko estatutuak
Kontseilu Nagusia	-	-	-	30	50
Administrazio Kontseilua	12	13	22	16	16
Batzorde Iraunkorra/Batzorde Exekutiboa	3	-	7	8 eta 8 bitarte	8 eta 8 bitarte
Kontrol Batzordea	-	-	5	10	12
Zuzendari kudeatzailea/Zuzendari nagusia	1	1	1	1	1
Entitate Sortzaileen Batzarra (kontsulta-organoa)	-	-	-	-	Aldakorra

Goi-karguen izendapenari dagokion alderdi honetaz gainera, hainbat zergaren subjektu pasibo gisa, Nafarroako Zerga Ogasunak arlo fiskalean betetzen dituen ikuskaritza- eta kontrol-jarduketan pean egon da Nafarroako Kutxa.

### III.5. NAFARROAKO GOBERNUAREN BARRUAN, ORGANIKOKI, AURREZKI KUTXEI BURUZKO ESKUMENAK NORK IZAN DITUEN

Egindako lanaren denbora-esparruan, aurrezki kutxei buruzko kontrol finantzarioaren inguruko eskumenak Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Finantza Politikarako Atalari esleitu izan zaizkio. Atal hori Departamentuko hainbat zuzendaritza nagusiren zerbitzuetan egon da sartuta.

Unitate horri eta arlo honetan dauzkan eskumenei denboran zehar eutsi izan zaie. Laburbilduz, honako ildoak aipa ditzakegu:

- Maiatzaren 23ko 76/1984 Foru Dekretua, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena.

Ekonomia eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren barruan Ekonomiaren eta Aurrekontuen Zerbitzua dago, zeinak honako eskumena baitu: "*Foru Komunitatearen finantza-politika, haren administrazioari dagokiona eta haren beste organo batzuei esleituta ez dagoena*". Zerbitzu hori hiru atalek osatzen dute. Horietako batean, Finantza Politikarako Atalean, gaingiroki, Foruaren Hobekuntzaren arabera administrazioari dagozkion finantza politikaren arloko eginkizun guztiak kokatuta daude.

- Azaroaren 5eko 216/1987 Foru Dekretua. Ekonomia eta Ogasun Departamentua. Egitura organikoa.

Arlo honetako eskumenak Ekonomia eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiko Ekonomia Zerbitzuko Finantza Politikarako Atalean kokatzen dira. Aztertutako eginkizuna berariaz aipatzen duen lehenengo araua da, atal honi honakoa esleitzen baitio:

*"Nafarroako Foru Komunitateak aurrezki kutxen arloan dauzkan eskumenez baliatzea – eskumen horiek Nafarroako Aurrezki Kutxen Zuzendaritza Organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legetik eta hura garatzeko gainerako arauetatik heldu dira–, Foru Komunitateari egoki dakizkiokkeen gainerako eskumenez baliatzea, kreditu korporatibo eta publikoko eta lurralde-kredituko erakundeen arloan, eta, halaber,, finantza-politikako edozein arlotan, oro har, dagozkion eskumenez baliatzea."*

Komeni da zehaztea aipatutako 7/1987 Foru Legearen eta hura garatzeko geroko garapen-arauen<sup>4</sup> aplikazio-esparrua helbide soziala Nafarroan duten aurrezki kutxak direla<sup>5</sup>, eta entitate horiei dagokiela soilik, zeren eta berariaz esaten baitu aurrezki kutxa forudun edo hitzartuen "*hitzarmenen araubidea ezertarako kendu gabe ulertuko dela*".

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Kutxaren kontrola eta ikuskaritza, entitate foruduna den aldetik, atal horren eskuetan egongo lirateke, zeren eta bere funtzio orokorren artean sartzen baitira Foru Komunitateari kreditu korporatibo eta publikoaren eta lurralde-kredituaren arloan dagozkion eskumenak, bai eta, oro har, finantza-politikaren arloko beste edozein ere.

- Otsailaren 24ko 40/2005 Foru Dekretua. Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren egitura organikoa.

Aurrezki kutxen gaineko kontrol finantzarioko eginkizunak Aurrekontu eta Diruzaintzako Zerbitzuko Finantza Politikarako Atalari dagozkio, Departamentuko Ekonomia eta Aurrekontu Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren barruan.

Finantza Politikarako Atalak esparru honetan dauzkan eginkizunak jada ez dira Nafarroako Aurrezki Kutxen Zuzendaritza Organoei buruzko 7/1987 Foru Legekoak; izan ere, orokorrak dira, eta gisa guztietako aurrezki kutxak hartzen ditu, forudunak barne. Hartara, besteak beste, honako eskudantzia aipatzen da berariaz:

---

<sup>4</sup> Funtsean, Aurrezki Kutxen Zuzendaritza Organoei buruzko ekainaren 12ko 131/1987 Foru Dekretua eta Foru Komunitatearen Zenbait Eskumen Garatzeko ekainaren 29ko 244/1992 Foru Dekretua.

<sup>5</sup> Behin eta berriz esan dugun bezala, 1999tik ez dago inongo aurrezki kutxarik Nafarroan helbide soziala edukitzearen baldintza betetzen duenik, Nafarroako Kutxa izan ezik.

*“Foru Komunitateak Aurrezki Kutxen, Kreditu Kooperatiben eta Aurreikuspen Sozialeko Mutualitateen arloan dituen eskumenak betearaztea”.*

Aurrezki kutxen gaineko eskumenen esleitze horri eutsi egiten zaio, funtsean, departamentuaren egiturari buruzko hurrengo foru dekretuetan.

Azkenik, zehaztu beharra dago atal horri esleitutako eginkizunak ez direla mugatzen aurrezki kutxen gaineko kontrol finantzariora; izan ere, beste eginkizun nagusi batzuk ere eskuratu dituzte, nola baitira foru sektore publiko osoaren zorduntze politika eta haren administrazioa eta Estatuko eta Europako Batasuneko finantza politikekin koordinatzea.

#### **IV. ONDORIOAK**

Parlamentuaren eskariari eta egindako lanaren norainokoari dagokienez, ondoren erakusten ditugu lortutako ondorio nagusiak.

##### **IV.1. ESPARRU OROKORRA**

1. Foru erkidegoaren eskubide historikoei jarraituz, berariaz aitortzen da Nafarroan araubide berezi bat dagoela aurrezki kutxen arloan, eta kutxa horiek hitzarmen batzuen menpean daudela, hain zuzen ere Nafarroako zein Estatuko gainerako lurraldeetako kutxei buruz dagoen araubide orokorrak salbuesten dituen hitzarmenak. Hori dela eta, Nafarroako Aurrezki Kutxa entitate hitzartu edo foruduntzat kalifikatzen zen.

2. Araubide berezi hori islatzen zen, funtsean, haren estatutuak arloan eskudunak diren agintariekin eta erregulatzaile nazionalekin –funtsean, Ekonomia Ministerioa eta Espainiako Bankua– batera idatzi behar izatean; estatutu horietan, izan ere, 1976tik, Nafarroako Gobernuari antolamenduaren eta ikuskaritzaren arloko eskumenak esleitu izan zaizkio.

3. Nafarroako Kutxaren finantza-jarduketa, alabaina, Estatuko legedi orokorraren menpe zein, bai eta goi-zuzendaritzako, gainbegiratzeko, koordinazioko, kontroleko eta zehapeneko eginkizunen menpe ere, zeinak, funtsean, Espainiako Bankuaren esku baitaude.

4. Ikuskaritzaren arloan, laburbilduz, Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Bankuaren arteko eskumen-banaketa bat ezartzen zen, honako ezaugarri nagusi hauen arabera:

- Nafarroako Kutxaren gaineko aldizkako ikuskaritza arruntak eta, kasua bada, ikuskaritza bereziak Nafarroako Gobernuari dagozkio; hau da, ez daude zuzenean Espainiako Bankuaren esku, araubide orokorrean ez bezala. Funtzio horiek Kutxaren jarduera osora zabaltzen dira, horren barne direla gizarte-lana, kaudimena eta segurtasuna.

- Aitortzen da Nafarroako Kutxa araudi indardunari lotuta dagoela kreditu-entitateei dagokienez, bai eta agintari finantzarioek (ministerio eskuduna eta Espainiako Bankua) emandako agindu eta jarraibideei ere. Hau da, ikuskaritzaren arloan, Nafarroako Kutxa banku horren gainbegiratze orokorraren menpe dago, eta hori zehazten da Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenen eta haien emaitzen berri hari eman behar izatean.

- Espainiako Bankuari dagokio Nafarroako Kutxaren finantza-jardueraren gaineko goi-ikuskaritza, bai eta Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenen ondorioz hartu beharreko oinarrizko erabakiak hartzea ere.

5. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago ezen, izan diren arau-aldaketekin, bereziki Konstituzioa onetsi zenetik, aurrezki kutxak, pixkanaka, kreditu-entitateen izaera hartzen joan direla, eta bankuen pare jartzen joan direla finantza-bitartekaritzako eragiketei dagokienez, eta, horrenbestez, finantza-sistema nazionalen sarturik daudela, dauzkaten ongintzako xede eta xede sozialak kendu gabe.

Integrazio horrek berarekin dakar Espainiako Bankuak nagusitasun bat izatea Nafarroako Kutxaren finantza-alderdiaren gaineko gainbegiratze- eta ikuskaritza-ahalmenetan; Nafarroako Gobernuaren eskumenak, berriz, praktikan, antolamendu- eta estatutu-alderdietan zentratzen dira.

Alabaina, Nafarroako Kutzaren estatutuen ondoz ondoko aldaketetan, jarraitu da Nafarroako Gobernuari berariaz esleitzen Kutzaren gaineko ikuskaritza-eskumen hori.

**6.** Babesletza publikoaren arloan, Nafarroak Gobernuaren berariazko eskumenak honakoetan islatzen ziren, funtsean:

- Estatutuen onespina eta aldaketa Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak-Espainiako Bankuak elkarrekin batera egiteko betebeharra.
- Urteko kontuak, oroitidazkia eta auditoria-txostenak Nafarroako Gobernuari igortzea, ezagut ditzan.
- Etekinak banatzeko proposamena eta ongintzazko lanaren eta gizarte-lanaren aurrekontua onestea.
- Beste kide batzuk izendatu ahal izatea, hizpidearekin baina botorik gabe, entitateko zuzendaritza organoetan.
- Entitateko Kontrol Batzordearen txostenak hartzea eta hari txostenak eskatzea.
- Nafarroako Aurrezki Kutzaren bateratze, banantze eta eraldatzeei buruzko erabakiak baimentzea.

**7.** Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzako gizarte organoetako kideen gehiengoa hautatzearen arloan esleituta dauzkan estatutu-eskumenez baliatu izan da.

Gainera, 2010eko estatutueta arte, non debekatzen baita organo horietako kargudun publiko-politikoak izendatzea, haietarako izendatzen ziren kideek baldintza hori izan zezaketen; are gehiago, baldintza hori bazeukaten.

Egoera horrek paradoxa bat agerrarazten du: Nafarroako Kutzaren jarduketak ikuskatzeko eta kontrolatzeko eskumenak zeuzkana zuzendaritza- eta kontrol-organoetako kidea zen edo/eta organo horietako kideak izendatzeko gaitasuna bazeukan.

**8.** Nafarroako Gobernuaren egitura organikoaren barruan, aurrezki kutxen gaineko finantza-kontrolaren arloko eskumenak berariaz Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Finantza Politikarako Atalari esleituta daude. Plantilla organikoaren arabera, atal horrek hiru lanpostu dauzka: A mailako atalburutza bat, A mailako administrazio publikoko teknikari bat, adar ekonomikoa, eta C mailako administrari bat. Atal horretako egungo arduraduna 2013ko urtarriletik betetzen du kargu hori.

Atal horrek esleituta dauzka, gainera, bestelako eginkizun garrantzitsu batzuk, zeinetatik nabarmentzekoa baita foru sektore publiko osoaren zorduntzearen politika eta zorduntze horren kudeaketa.

Bestalde, Espainiako Bankuaren finantza-entitateen gaineko gainbegiratzea, zeina Nafarroako Kutzari ere baitagokio, ez da ikuskaritza-jarduketa jakin batzuetara mugatzen; izan ere, honakoak ere biltzen ditu, elementu nagusi gisa: jarduerari buruzko finantzen, kontabilitatearen eta estatistikaren arloko egoera-orri ugari jasotzea, prozesatzea eta aztertzea, zeinek hainbat eduki eta aldizkakotasun baitauzkate eta jarduera osoa hartzen baitute. Horren guztiaren bolumena eta konplexutasuna direla eta, lan hori nekez egin liteke atal horrek atxikita dauzkan giza- eta gauza-baliabideekin.

#### IV.2. NAFARROAKO GOBERNUAK BETETAKO IKUSKATZE-EGINKIZUNA

9. Aztertutako aldia (1982tik 2011ra), ez dago jasota Nafarroako Gobernuak<sup>6</sup> zuzenean ez ikuskapen arruntik, ez ikuskapen berezirik egin duenik Nafarroako Kutxaren finantza-jarduerari buruz, ez eta Espainiako Bankuari igorri dionik ere ikuskatutako kontabilitate-informaziorik.

- 1983ko ekainaren 9ko Erabakia.
- 2001eko irailaren 3ko Erabakia.
- 2004ko urriaren 18ko Erabakia.

1983ko erabakiari dagokionez, nabarmentzekoa da lehenengo aldia izan zela Espainiako Bankua Nafarroako Kutxaren gaineko goi-ikuskaritzako ahalmenez baliatu zena.

Azkeneko bi erabakietan, Nafarroako Gobernuak jakinaren gainean zegoela adierazteaz gainera, baimena ematen zion Espainiako Gobernuak behar ziren ikuskatze "arrunteko" jarduketak egiteko bere goi-ikuskaritzako eginkizuna betetze aldera.

11. Espainiako Bankuak egindako ikuskapen horietatik, soilik 2004koari dagokionez dago jasota Espainiako Bankuak Nafarroako Gobernuari igorri ziola Nafarroako Kutxako lehendakariari – zeina aldi berean Nafarroako Gobernuko lehendakaria ere bai baitzen– helarazitako gomendio-txostenaren kopia bat. Txosten horretan, zenbait arlori buruzko gomendio-sorta bat eman zen: kreditu-inbertsioa, barne kontroleko sistema eta barne arlorako eta enpresa-korporazioari buruzko beste gai batzuetarako auditoriako saila, entitatearen sistema informatikoa eta kontabilitateko egoera-orrien bateratzea.

#### IV.3. NAFARROAKO GOBERNUAK BETETAKO BABESLETZA-EGINKIZUNA

12. Babesletza-jarduera nagusia gauzatu zen Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak elkarrekin batera estatutuak onesterakoan eta estatutu horiek aldatzerakoan. Hartara, 1921eko hasierako estatutuak kenduta, non haiek aldatzeko ahalmena Foru Diputazioarentzat gordetzen baitzen, 1976ko, 2000ko, 2004ko eta 2010eko estatutu-aldaketak elkarrekin batera idatzi eta onetsi zituzten Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak, Espainiako Bankuaren bitartez. Zehaztu beharra dago ezen, 1921eko eta 1976ko estatutuak kenduta, gainerakoak ez zirela inongo aldizkari ofizialetan argitaratu.

13. Nafarroako Kutxak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari urtero bere urteko kontuak, oroitidazkia, kudeaketa-txostena eta auditoria-txostena igorri dizkio, bai eta haien beste eranskin batzuk ere. Ez dago jasota haiei buruzko inongo jarduketa administratiborik egin denik. Horri dagokionez, adierazi behar dugu ezen, estatutuen 2000ko aldaketaren ondoren, urteko kontu horiek Nafarroako Gobernuri igortzen zaizkiola soilik "ezagut ditzan"<sup>7</sup>.

Aztertu ditugun auditoria-txostenek aldeko iritzia agertzen dute, salbu eta 2011ko ekitaldikoan, non salbuespen bat azaltzen baita.

Salbuespen hori dagokio Banca Cívica partaidetzari emandako balorazioen kontabilitate-tratamenduari; hartara, partaidetza hori 2011ko uztailan egindako akzio-harpidetarako eskaintza publikoan akzio horiek kolokatzekoan lortu zen prezioaren arabera baloratu zen, eta erosketa-prezioarekiko aldea –erosketa-prezio hori segregazio prozesuan ekarritako aktibo garbien balioaren emaitza zen– erreserben kargurako okerragotze baten modura erregistratu zen; ala-

<sup>6</sup> Aipatutako aldia baino lehen, Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Juridikoen txostenaren arabera, Foru Diputazioko langileek hiru ikuskapen egin zituzten Nafarroako Kutxan, 1961ean, 1974an eta 1978an. Ikuskapen horietako lehenengoa Foru Diputazioko Kontulariari enkargatu zitzaion; beste biak, berriz, Ogasuneko funtzionarioei.

<sup>7</sup> 1976ko estatutuetan, Foru Diputazioak Nafarroako Kutxaren urteko kontuak "ikuskatzeko" eginkizuna jasotzen da, haiek "ezagutzeko" eginkizunaz gainera.



baina, kontabilitate-araudiari jarraituz, ekitaldiko emaitzen kontra egotzi beharrekoa zen, magnitude hori gutxituz.

Halaber, salbuespenak aipatzen du ez zela Banca Cívicaren balorazio gaurkoturik eduki 2011ko abenduaren 31ko datarekin, eta, hori dela-eta, ezin izan zela ebaluatu balorazio horrek nolako eragina izan zuen zorro hori dela-eta Nafarroako Kutzaren balantzeko aktiboan erregistratutako zenbatekoan.

**14.** 2000tik aurrera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko zuzendari nagusiaren ebazpenak ageri dira, zeinen bide berariaz baimena ematen baita bai entitateak erabakitako etekinen bana-ketarako, bai entitateak berak hurrengo ekitaldirako daukan gizarte-lanaren aurrekonturako ere. Ebazpen horiek eman izan dira Nafarroako Kutzarengandik gai horiei buruzko kasuko erabakiak jaso ondoren.

**15.** Halaber, ganbera honek aztertutako dokumentazioan, jasota dago Nafarroako Gobernuak emandako baimena, Nafarroako Aurrezki Kutzaren eta Iruñeko Udal Aurrezki Kutzaren xurgatze bidezko bat-egiterako. Ez dago jasota, ordea, Nafarroako Kutzaren aktiboen eta pasiboen segregazioa, Banca Cívicaren aldekoa, baimentzeko erabakirik.

Caixabankek, geroztik, Banca Cívica xurgatzeari buruz, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko idazkaritza teknikoaren idazki bat ageri da, non agerian jartzen baita ezen banku-izaera duten bi kreditu-entitate direnez –alegia, bi aurrezki kutxa ez direnez– eta, gainera, helbide soziala Nafarroatik kanpo dutenez, eragiketa hori arlo horretan Foru Komunitateari dagozkion eskumenez kanpokoa dela; jasota dago, bestalde. Caixabanken eta Banca Cívicaren xurgatze bidezko bat-egiteari buruzko erabakia Baloreen Batzorde Nazionalari igorri izatearen kopia bat.

**16.** Nafarroako Kutzaren estatutuek Nafarroako Gobernuari ematen dizkieten eskudantziak aplikatuta, ez dago jasota honakoak egin izana:

- Nafarroako Gobernuak, bere ahalmenez baliatuta, beste aholkulari batzuk izendatu izana –hizpidearekin baina botorik gabe– Administrazio Kontseilurako, Batzorde Exekutiborako eta Kontrol Batzorderako.

- Nafarroako Kutzako Kontrol Batzordeak Nafarroako Gobernuari txostenak igorri izana entitateko finantza-kudeaketari buruz edo, kasua bazen, Administrazio Kontseiluaren eta Batzorde Exekutiboaren egintzen eraginkortasuna bertan behera utzi izateari buruz.

- Nafarroako Gobernuak inongo txostenik eskatu izana Kontrol Batzordeari.

**17.** Nafarroako Kutzak entitate forudun edo hitzartuaren izaera bazuen ere, eta, horrenbestez, aurrezki kutxei buruzko foru araudia aplikatu behar ez bazitzaion ere, haren jarduketa batzuetarako aurrez Nafarroako Gobernuaren baimena edo/eta komunikazioa egon izan dira. Esate baterako:

- Aurrezki Kutxen Erregistroa. Erregistro horretan dagoen informazioa erkidegoan irekitako bulegoen hiru zerrendari buruzkoa da: lehenengoa 1988koa da, bigarrena 1992koa eta hirugarrenak ez du datarik.

- Goi-karguen Erregistroa. Nafarroako Kutzari dagokionak informazio oso ugaria, anitza eta erreferentzia gabea dauka. Horren barnean daude Nafarroako Kutzaren, Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Bankuaren arteko komunikazioak. Dokumentazio hori, funtsean, goi-karguen izendapenari eta baja emateei buruzkoa da.

- Nafarroako Kutzako goi-karguek eta horien bigarren gradurainoko ahaideek egindako eragiketa batzuen komunikazioari eta baimentzeari dagokienez, berariaz jasota dago 1978ko baimen bat, garai hartan publikoa zen enpresa bati abal bat emateari buruzkoa; izan ere, Nafarroako Kutzako goi-kargu batzuek loturak zeuzkaten enpresa horrekin.

**Laburbilduz eta amaierako ondorio gisa**, esan dezagun Nafarroako Kutzak, Nafarroako eskubide historikoei jarraituz, forudun edo hitzartu gisa kalifikatutako entitate bat zela. Araubide berezi hori honela gauzatzen zen, funtsean: Nafarroako Gobernuak antolamenduaren, ikuskaritzaren eta estatutuen idazketari buruzko eskumenak hartzen zituen nazioko agintaritza eta erregulatzaile eskudunekin batera.

Hartara, aztertu dugun 1982tik 2011ra bitarteko aldian, Nafarroako Gobernuak ez zen Nafarroako Kutxak garatutako jardueraren gaineko ikuskaritza-ahalmen horretaz baliatu. Praktikan, Nafarroako Gobernuaren jardunak mugatu zen Espainiako Bankuak egin behar zituen ikuskapenen jakinaren gainean egotera.

Horri dagokionez, zehaztu beharra daukagu ezen aurrezki kutxak kreditu-entitatetzat hartzeak eta, horrenbestez, haiek Espainiako finantza-sisteman sartzeak, beraiekin ekarri dutela Espainiako Bankuak nagusitasuna izatea Nafarroako Kutxaren alderdi finantzarioaren gaineko gainbegiratze- eta ikuskatze-ahalmenetan.

Gobernuaren babesletza-eginkizuna zentratu zen, funtsean, Kutxaren estatutuak Ogasun-Ministerio-Espainiako Bankuarekin batera idaztean, entitateak erabakitako etekinen banaketarako baimenetan eta gizarte-lanaren urteko aurrekontuaren onespenean.

Kutxa sortu zenetik eta 2010era arte, Nafarroako Gobernuak kideek, beste kargu politiko batzuen artean Nafarroako Kutxak organoetan parte har zezaketek; urte horretatik aurrera, berriaz, aipatutako Gobernuak organo horietako kideak izendatzeko eskumenari eutsi zion. Horrek esan nahi du ezen, teorian, Gobernuak, bide horretatik, finantza entitatearen jardueraren gaineko zuzeneko kontrola izan zezakeela.

Nolanahi ere, kontrol egokia izateko sistema bat diseinatzearen ikuspuntutik, ez dirudi arrazoizkoa denik kargu horiek betetzen zituztenak edo karguetarako izendapena egiteko eskumena zutenak izatea, aldi berean, Nafarroako Gobernuak entitatea kontrolatzeko arduradunak.

Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzailea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko otsailaren 12an  
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Kontuen Ganberak, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak eskatuta, behin-behineko txostena egin du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kuxaren ikuskapen eta babesletza egin-kizunei dagokienez izandako jardunari buruz (1982-2011). Txosten hori jasota, honakoak adierazi behar ditugu:

Txosten horrek jasotzen duela Nafarroako Aurrezki Kutxaren ikuskapen- eta babesletza-lanekin lotutako erakundeek eta organismoek 1982tik 2011ra bitarteko epean betetako eginkizuna, eta bereziki ezarri duela Espainiako Bankuak nolako nagusitasuna izan duen Nafarroako Kutxaren finantza-alderdia gainbegiratzeko eta ikuskatzeko ahalmenei dagokienez. Espainiako Bankuak gainbegiratzearen eta ikuskaritzaren arloetan Nafarroako Aurrezki Kutxari aplikatu zion jarduketa-eremu zabal-zabala berariaz eta ofizialki jasota dago Espainiako Bankuaren Gainbegiratze Ereduan, zeinaren azken bertsioa idazki honi erantsi baitiogu. Informatutakoarekin daukan zuzeneko lotura dela eta, eskatzen dut alegazio honen eranskin gisa sar dadila.

Iruñean, 2014ko otsailaren 4an

Aurrekontuko zuzendari nagusia: Juan F. Franco Pueyo

30.06.2011

Espainiako Bankuaren Gainbegiratze Eredua

**AURKIBIDEA**

1. Sarrera	1
2. Espainiako Bankuaren gainbegiratze prozesua	2
2. 1. Espainiako Bankuaren gainbegiratze prozesuaren helburua	2
2.2 Espainiako Bankuaren gainbegiratzearen egitura eta antolamendua	4
2.3 Gainbegiratze-jarduketa motak	5
2.4 Espainiako Bankuaren gainbegiratzerako tresna informatikoak eta metodologikoak	8
3. Espainiako Bankuaren gainbegiratze prozesuko jarduerak	9
3. 1 Kontabilitatearen berrikuspena, aktiboen eta pasiboen balioespena	9
3.2 Analisi ekonomiko-finantzarioa	10
3.3 Arauak betetzeari buruzko berrikuspena	10
3.4 Arriskuen eta kaudimenaren berrikuspena eta ebaluazioa	11
4. Entitateak balioesteko sistema	13
4.1 Berezko arriskua	14
4.2 Barne gobernua	16
4.3 Arriskuen kudeaketa eta kontrola	17
4.4 Hondarreko arriskua	18
4.5 Gobernu korporatiboa	19
4.6 Entitatearen arrisku-profila	20
4.7 Entitatearen kaudimen-egoerari buruzko analisia	21
4.8 Gainbegiratze arriskuaren profila eta entitatearen lehentasuna ikuskapena dela eta	22

4.9 Gainbegiratze-esparrua eta urteko jarduketa-planak	24
5. Nazioarteko taldeen gainbegiratzea Beste gainbegirale batzuekiko kooperazioa	24
1. ERANSKINA. Entitateetan eragiten duten arriskuen definizioa	26
2. ERANSKINA. Arriskuen matrize murriztua	27

#### **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN- DAKO ERANTZUNA**

Aurrekontuko zuzendari nagusi Juan Franco Pueyo jaunak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2014ko otsailaren 12an  
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas